

'Kapitain Frakasa'-ren 'remakea' egin du Anjel Lertxundik, argitaratu eta 30 urtera

«Orduko peripeziak daude, baina liburu berri bat da, idazkuntza berri bat dagoelako eta piezen antolamendua ere berria delako», dio idazleak

NEREA AZURMENDI


DONOSTIA. Aldi bertsuan eduki zituen Anjel Lertxundik esku artean gerora 'Kapitain Frakasa' eta 'Otto Pette' bilakatuko ziren proiektuen haziak. Hurrenkera horretantxe argitaratu ziren: 'Kapitain Frakasa' aurrena, 1991ean, Ereinen, eta 'Otto Pette' handik hiru urtera, Albedaniaren eskutik.

Mende laurdena edizio berezi batekin ospatu zuenerako, urte asko zeramatzan 'Otto Pette'-k euskal literaturaren funtsezko testuen multzoan. Aurten 30 urte betetzen dituen 'Kapitain Frakasa' ez da inondik ere liburu ahanzia, baina ez du izan haren eta Lertxundiren beste lan batzuen sona eta hedapena. Besteak beste, Ereineko editore Inazio Mujika Iraolak atzo Donostian egindako aurkezpenean gogoratu zuenez, «geroztik autoreak ez duelako berrargitaratu nahi izan. Ez zuen asebate, nonbait». 30 urteren buruan, iritsi zaio argitara itzultzeko unea, oraingo hau iruditu zaiolako Anjel Lertxundiri ariketari heltzeko abagunea.

Beste bertsio bat

Editoreak eta autoreak nabarmendu zuten 2021eko 'Kapitain Frakasa' ez dela 1991koaren «edizio berritu bat». «Ez da jatorrizko nobela Euskaltzaindiaren azken arauetara egokitua, hori baino askoz gehiago da. 'Remake' bat da, nobelaren beste bertsio bat», adierazi zuen Mujika Iraolak.

Berridazketa honetan, hain zuzen, Anjel Lertxundik «argitu egin



30 urtean ez da berrargitaratu nobela. Orain heldu da momentua. E.A.

KAPITAIN FRAKASA ANJEL LERTXUNDI

Generoa: Eleberria.
Argitaletxea: Erein.
Orrialde kopurua: 192.
Salneurria: 17 euro.

du nobela zentzu askotan. Atzo bertan berri-berri kaleratu izan balitz bezala, bihurtu du gaurkotasan handiko nobela, gaur egun idatzia». Idazlearen hitzetan, «orduko liburua da, baina liburu berri bat. Orduko peripeziak hemen daude, baina liburu berri bat dago, idazkuntza berri bat dagoelako eta puzzlean pieza berdina egonagatik horien antolamendua berria delako».

«Euskal Herriaz mintzatzeko», Euskal Herriatik urrun kokatu zituen Lertxundik peripezia horiek,

Marsella inguruan, Frantzia eta Italiaren arteko mugako lurretan. «Erakunde ezkutuen ekintzatarako; pertsonen, gauzen eta aberastasunen kontrabandoa egiten duten organizazio mafiosoentzat» aproposak izaten jarraitzen duten mugalde horietako batean.

Kokapena bezain nahasia aukeratu zuen garaia: Frantziak Algeriako gerran murgilduta jarraitzen zuen eta Gerra Hotza hotzean zegoen 1960 urtea. Kokapenaren eta garaia izatera ilun, susmati eta mugako bera dute izenburua 'commedia dell'arte'-ko pertsonaia bati hartu zion nobelan mugitzen diren izakiek.

Ezizen eta maskaren atzean ezkutatzatzen dira. Ezizenen orde bestez ezizen batzuk dituzte; maskaren azpian, maskara gehiago.

Protagonista bera— «talde mafioso baten barruan gainbehera etorritako gizon eroria»— izen askoren atzean mozturatu da. Irakurleak ez du sekula jakingo zein den egiazkoa, baina ezagutuko ditu bere ibilerak, igorle ezagunik ez duen pasaporte mehatxatzaile bat jasotzen duen momentuan argi ikusiko duelako bereak egin duela, gelditzen zaion aukera bakarra dela «atsedenik gabeko oroimenaren azterketa urduria».

Argiagoo eta landuagoo

'Kapitain Frakasa'-k badu «nobela beltzaren taxua», azalak (Marcel Carné-ren 1938ko 'Le Quai des Brumes' filmeko fotograma bat) areagotzen duena. «Fotograma horretan iluntasuna dago. Nobelan ere bai, eta iluntasun horretan ez da inor inorekin fidatzen», esan zuen Lertxundik.

«Iluntasun horretan joan nintzen konfiguratuena historia. Hasi nintzenez eszena batetik abiatu nintzen, beste ezertxo jakin gabe», gogoratu zuen. Itsumustuka idaztea ere tokatu zitzaion tarteka, «gorabehera sintaktikoetan» korapilatuta eta...

Alde horretatik askoz argiagoo daude gauzak gaur egun, euskarak —zehazki «hizkera literarioak»— harrezkerotik sekulako bidea egin duelako, neurri handi batean itzulpenegintzari esker. Horren bestez, «sinesten badugu hizkuntzak egiten duela literatura, liburu berria da, hemen dagoelako 30 urteko euskal literaturaren eskarmentua».

Iluntasuna uxatzeko berrikusi du «puzlearen piezak» antolatzeko modua, eta lanketa horren ondorioz irakurleak aurkituko du «beste 'Kapitain Frakasa' bat, landuagoo, argiagoo». Pertsonaiak ez dira geratu eguneratetik a: «Finagoo daude. Gehiegi aldatu gabe beste gorputz bat hartu dute».

'Kandelikara', Harkaitz Canok zinemari egin dion «omenaldi bihurria»

Literaktum jaialdiaren barruan aurkeztu da Luis Buñueli buruzko lana, Nosferatu Bildumako bederatzigarren alea

M. I.

DONOSTIA. 2013 urteaz geroztik, Nosferatu programako ziklo bakoitzarekin batera euskarazko argitalpen bat kaleratzen dute Donostia Kulturak eta Euskadiko Filmmategiak. Urtez urte osatzen doan Nosferatu Bilduma delakoaren bederatzigarren zenbakia Harkaitz Canoren 'Kandelikara - Buñueli buruzko film baterako apunteak'

liburua da, Iñaki Landaren ilustrazioak dituen.

Atzo aurkeztu zen, Literaktum jaialdiaren barruan, hedabideentzat goizean eta publiko zabalarantz atarratsaldeko 18:00etan Tabakalera, 'Belle de Jour' (1966) filmaren proiektzioaren aurretik egin zen ekitaldi batean

Liburua Luis Buñueli buruzkoa da, jakina, zuzendari aragoiarra delako aurtengo Nosferatuaren programazioko protagonistita nagusia. Urtarrilean hasi eta abenduan amaituko den atzerabegirako zikloa haren 32 filmak ikusi edo berrikusteko aukera ematen ari da Tabakalera. Liburua «Luis Buñuelen irudiari eta obrari buruzko saiakera

personal bat» da, eta aipatu zikloari gehitu zaio.

«Literaturaren alde jostarienetik zinemari egindako omenaldi bihurri hau, Luis Buñuelen eta beste artista askoren testu, film, elkarrizketa zati, poema, off-eko ahots eta bestelakoekin remake bat da», idatzi du Canok bere lanaz. «Tarteka, egileak asmatutakoak ere badira. Inoiz edo behin, Buñuelekin zerikusirik ez duen jendeak parte hartuko du: adibidez, aseguru-saltzaile armeniar batek. Badelako modu bat saiakera fikzio bihurtzeko: aski da kandelaren argitan irakurtzea, liburuak esku artean su hartzen dizun bitartean», aurreratu dio irakurleari.



Harkaitz Cano

Larunbatean jokatu da Donibane Lohizunen Xilabako finala

M. I.

DONOSTIA. Amets Arzallus, Odei Barroso, Maddalen Arzallus, Maddi Ane Txoperena, Patxi Iriart eta Miren Artetxe bertsolariak prest dira datorren larunbatean, azaroak 13, 17:00etatik aurrera, Donibane Lohizuneko Kanpos Berri Jai Alain jokatu den Xilaba Ipar Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerako. Irabazleari Andoni Iturriozek jarriko dio txapela. Bera aukeratu dute «bertsularitza eta, oro har, euskal kultura eta euskal nortasuna, itzaleko lanetik hainbeste lagundu» izanagatik.

Irailaren 18an Makean hasi eta bidea amaitzear den Xilaban 24 bertsolari hartu dute parte. Saioei dagokienez, lurraldetasuna errespetatzen saiatu dira: Makea, Muskildi, Hiriburu, Gabadi, Maule-Lexarre, Baroze eta Izpura izan dira aukeratutako herriak. «Ohikoa baino entzule gutiago ibili da, osasun ziuertagiria eskatzeak eta, osasun egoerarekin loturiko debekuen ondotik, beste antolakunde anitzek memento berean ekimenak antolatzeak eragina izan dute seguraski», gogoratu zuten finalaren aurkezpenean, esker oneko agertuz bidean lagun izan dituzten guztiekiko.

Egokitu zitzaizkien finalaurrekoan gailenduz edo puntuaketa altuena eskuratuz sailkatu dira sei bertsolariak, hiru emakumezko eta hiru gizonetzko, larunbateko finalerako. «Txapelketa trinkoagoo izanki, jauzi handia izan da final aitzinekotik finalera pasatzea, 18 bertsolariatik 6 baizik ez baitira sailkatu», azaldu dute antolatzaileek.

Nafarroakoa, Leitzan

Nafarroako Bertsolari Txapelketa, berri, hilaren 28an Iruñean jokatu den finaletik urrats bakar batera dago, igandean jokatu baina Leitzan hirugarren eta azken finalurrekoa.

Bertan argituko da Iruñeko finalean ariko diren zortzi bertsolarien behin-betiko zerrenda. Herriko kiroldegian izango da Leitzako saioa, igande honetan, azaroak 14, arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Sei bertsolari ariko dira kantari: Joanes Ilarregi, Eneko Fernandez, Sarai Robles, Xabier Silveira, Julen Zelaieta eta Iker Gorosterrazu. Irabazlea zuzenean sailkatuko da finalera, aurretik Eneko Lazkozek eta Julio Sotok egin bezala. Puntuazioak erabakiko ditu beste bost finalistak.